



KUTXA Enplegatuen Elkarte	Xenda-zaletasun atala
97. zka. 5 euskal hiriburuen Zeharkaldi Handia	8. etapa/Luzaide-Orreaga/ 27-4-2013

Adiskide mendizaleok:

Bete egin zen “hirugarrenean asmatu” dioen esaera. Dagoeneko atzera utzi dugu hainbesteko beldurra sortzen zuen Lasa-Luzaide etapa: udaberriko giro ederra egin zuen, eta hori ere lagungarri izan zen jendeak ondo baino hobeto pasatzeko. Eta orain bigarren etapa honekin Orreagaraino iritsiko gara; ez da gutxi!

Pirinioen erdian estrategikoki kokatua, mendiak igaro nahi zituzten era guztietako bidaiari eta jendearentzat gunen nagusia izan da hasieratik. Horren ondorioz, bat egin zuten bertan hainbat kulturak, pixkanaka aberastu eta ospea eman zioten eskualdeari. 1127. urtean Iruñeko gotzaina zen Antso Larrosak erromesentzat ospitalea eta aterpetxea sortu zituen Ibañeta Gainean.

Salbatore baselizako kanpai-hotsa erromesentzat gidari zen behe laino-egunetan. Bost urte geroago, leku babestuagoaren bila, establezimendua egungo kokalekura aldatu zen. Karitate-lan handia egiten zuenez, emaitza ikaragarriak jaso zituen, Baskoniatik ez ezik, baita penintsulako eta Europako erresumetatik ere.

Santa Maria Errege Kolegiata —Frantziako arte gotikoaren berebiziko adibidea—, Antsoren hilobi gotikoa, Orreagako irudia (XIII. mendea), Sancti Spiritus kapera —Karlomagnoaren Zulo gisa ere ezaguna eta Orreagako eraikin zaharrena—, eta Santiago edo erromesen kapera: guztiak dira ikusgarriak, beren handitasun eta historiagatik.

Bada, honainoxe iritsiko gara hiru tontor dotore (Meatze, Lauriniaga eta Atxistoi) dituen mendi-sokan ibili ondoren. Guztiak larre-tokiak dira, eta atsegina eta eroso da bertan ibiltzea. Garaiera handienekoa Lauriniaga (1278m) da, Auñamendi edo Labiñakokaskoa ere deitua, han dago 161. mugarria eta Pirinioetako mendien eta kostaldeko Larrun eta Atxuria-ren ikuspegi paregabeak daude bertatik.

Animo, mendizaleok, natura zain dugu eta!!!

Ibilaldia:

Luzaide-Orreaga

Beharrezko denbora	4,30
Goranzko desnibel metatua	1.060 metro
Beharrezko desnibel metatua	655 metro
Zeharretara egin beharreko distantzia	17.580 m
 Ingurunea	1  Orientazioa
2  Joan-etorria	1  Esfortzu
	3 a

Irteera-lekua	Autobusen geltokia/Amara Plaza hotela
Aurkezteko ordua	07:20
Irteera-ordua:	07:30
Bazkaria	La Posada jatetxea
Prezioa	36 euro

Izena emateko azken eguna: 2013-04-25eko 12:00etan

Oharra: Eguraldiaren iragarpena txarra izango balitz larunbaterako, igandean egingo litzateke ibilaldia.

Izen-emateak posta-helbide hauetan egin behar dira: alahuerta@kutxa.es edo jlurretabezkaia@kutxa.es edo telefono hauetan: 943-00.14.69 (Alberto Lahuerta-Erosketen Administrazioa-806)/943-00.12.36 (Lorenzo Urretabizkaia-Erakundeak-381). Izena ematen duzuen guztioi, txangoari buruzko agiri edo dokumentazioa emango zaizue. Bazkariaren ondoren, ohiko opari-zozketa egingo da parte-hartzaile guztien artean.